

ERABAKIA, 2019ko MARTXOAREN 1ekoa, "ARTXIBO, BIBLIOTEKA ETA MUSEOETAKO LAGUNTZAILEAK" LAN POLTSA HANDITZEKO HAUTAKETA PROZESUAREN EPAIMAHAIARENA, OPOSIZIO FASEKO BEHIN-BEHINEKO EMAITZEN KONTRA AURKEZTUTAKO ERREKLAMAZIOAK EBATZI ETA BEHIN BETIKO EMAITZAK ONARTZEN DITUENA.

Behin "Artxibo, Biblioteka eta Museoetako Laguntzaileak" lan poltza handitzeko hautaketa prozesuaren oposizio faseko behin-behineko emaitzen -2019ko urtarrilaren 7an Epaimahaiaren erabaki bidez argitaratutakoak- aurka aurkeztutako erreklamazioak ikusi eta aztertuta, epaimahai honek ondokoa erabaki du:

Lehenengoa.- Onestea ariketa praktikoko emaitzen kontra aurkeztutako lau erreklamazio, beraz, emaitzen aldaketak prozesuko behin betiko emaitzak argitaratzean islatuko dira.

Bigarrena.- Ezestea ariketa praktikoko emaitzen kontra aurkeztutako bost erreklamazio. Interesdunei igorriko zaizkie ezespren ebazpenak, behar bezala arrazoituta.

Hirugarrena.- Ezestea ariketa teorikoaren 53. galderari aurkeztutako alegazioa. Interesdunari igorriko zaio ezespren ebazpena, behar bezala arrazoituta.

Laugarrena.- Hautagaietako baten ariketa praktikoren puntuazioan oker bat gertatu dela ohartuta, horren ondorioz guztirako puntuazioa ere ez da zuzena, beraz, erabaki da ofizioz zuzentzea bi akatsak.

Hau dioen lekuan: 2. etapako emaitzak

14***40**	575.00	SI
-----------	--------	----

eta oposizio faseko emaitzak

14***40**	20.00	SI	20.00	SI
-----------	-------	----	-------	----

Beste hau esan behar du:

2. etapako emaitzak

14***40**	5.75	SI
-----------	------	----

eta oposizio faseko emaitzak

14***40**	13.75	SI	13.75	SI
-----------	-------	----	-------	----

Bosgarrena.- Aurreko puntuetan onetsitako erreklamazioak kontuan hartuta, oposizio faseko behin betiko emaitzak onartzea eta enpleguaren atarian argitaratzeko agintzea.

Leioan, 2019ko martxoaren 1ean

Epaimahaiko idazkaria

Maria Jesús Areizaga Arana

